

15. FITXA GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzak

Norentzat: Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa-bideen titularrak diren edo gutxienez bide horien erabilera publikoa egiazta dezaketen udalerriak eta toki-erakunde txikiak.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako diru laguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia](#)

Eremuak: Landa azpiegiturak

Zenbatekoa: 1.300.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/05/20

Laburpena

Laguntza hauen xedea da **landa inguruean bizi direnen kalitatea hobetzea eta lehenengo sektorearen garapena sustatzea**, hainbat zerbitzu eskura ditzaten, irisgarritasuna eta, oro har, garraioa hobetuz eta nekazaritza-azalerak hobeto ustiatzeko aukera emanez.

Diruz lagundu daitezkeen jarduketak

- Landa bide berriak egitea, lehenengo asfaltatzea edo hormigonatzea.
- Nekazaritza ustiategietara doazen landa bideak konpontzea, egokitzea eta hobetzea.
- Landa-bideak seinaleztatzea, nekazaritza-ustiategietarako sarrerak seinalatzea.

Diruz lagunduko diren proiektuetarako ezartzen den gutxienerako inbertsioa **4.000 euro** da.

Entitate bakoitzek eskaera bakarra egingo du, eta **bertan** sartuko ditu laguntzeko eskatutako bideak. Deialdi bakoitzera **bost proiektu** aurkeztuko dira **gehienez**.

Diruz lagun daitezkeen gastuak

Orokorrean, diruz lagundu ahal izango dira **2024ko urtarrilaren 1etik** aurrera gauzatutako landa bideen inbertsioak.

Dena dela, 2023an egindakoak ere lagundu ahal izango dira, hiru kasu hauetan:

- Urte horretan ez bazen deialdirik egin edo, kasua bada, egindakoa bertan behera utzi bazen.
- Urte horretako deialdian dagokion biderako laguntza eskaera aurkeztu bazen eta dirulaguntza jaso gabe geratu bazen aurrekontu baliabideen faltagatik.
- Aurreko urteko deialdian aurkezteko epea amaitu ondoren izandako aparteko euriteek edo bestelako hondamendi naturalek bidean eragindako egiturazko kalteak konpontzen direnean, eta erabiltzaileen joan-etorrietarako arriskutsua izateagatik presazko jarduketa behar denean. Oinarri arautzaile hauen arabera, landa-bideak eraikitzeko, egokitzeko, konpontzeko, hobetzeko eta seinaleztatzeko obren kostuak lagundu ahal izango dira diruz.
- Aurreko urteko deialdiko eskaeren aurkezpen epea amaitu ondoren gertatutako aparteko euriteek edo beste hondamendi naturalek bidean eragindako egiturazko kalteak konpontzeko kasuetan, konponketa horiek premiazkoak zirenean erabiltzaileentzako arriskua zegoelako. Diruz lagundu daitezke oinarri arautzaile hauen bidez landa bideak eraiki, egokitu, konpondu, hobetu eta seinaleztatzeko lanen kostuak.

Baztertutako inbertsioak: Ez dira diruz lagunduko proiektuen idazketagatik eta obren zuzendaritzagatik ordainduko diren ordainsariak.

Dirulaguntzen zenbatekoa

Entitate eskatzaile bakoitzari **35.000 euro** emango zaizkio **gehienez** deialdi bakoitzeko.